

XVII. LUGARITZ – IKERTZE IPUIN LEHIAKETAKO OINARRIAK

1. Norentzat: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleentzat. Lehiaketan parte hartzea Antigua auzoko ikastetxeen bidez egin behar da.

2. Gaia: Ipuinak Iñaki Martiarena Otxotorenaren ilustrazioekin osatuko den erakusketako marrazkietan oinarritu beharko dira. Lehiaketara aurkezten diren ipuinek nolabaiteko zerikusia izan beharko dute marrazki horietako bat edo besterekin, edo nahi duten guztiekin.

Erakusketa: Lugaritz Kultur Etxean martxoak 16etik apirilak 19ra

Ilustrazioak ikusgai Ikertze Kultur Elkartearen eta Irutxuloko Hitza astekaria web orrietan:

www.ikertze.org eta irutxulo.hitza.eus

3. Epaimahaikideak: Lehiaketan parte hartzen duten haur guztiak epaimahaiko kide izan daitezke. Ipuinak aurkezterakoan adieraziko dute epaile izan nahi duten ala ez. Epaimahaikide guztiek ondorengo oparia jasoko dute; denda laguntzaileetan %5eko beherapen txartela.

4. Ipuinak honela aurkeztuko dira:

- a. GOOGLE DRIVE-en idatziak irakasleak adierazitako kontuan.
- b. Ipuina idazten hasi aurretik, lehenengo orrialdean ondorengo informazioa jasoko da:
 - i. Ipuinaren izenburua.
 - ii. Egilearen izena, helbidea eta telefonoa.
 - iii. Epaimahaikide izan nahi duen edo ez.
 - iv. Ikastetxea, maila eta gela.
 - v. Ikastetxeak lehiaketarako duen arduradunaren izena.

*Ipuinen idazketa bigarren orritik aurrera hasiko da, eta gehienez lau orriko luzera izango dute (1go orrialdea zenbatu gabe).

*Ipuinaren orrietan ez da inon ageriko ipuinaren izenbururik (1go orrialdean izan ezik).

*Ipuinak A4 neurrian eta tarte bikoitzez aurkeztu behar dira. Testuan, marrazkiak edo irudiak txertatzea aholkatzen dugu.

* Ipuinaren dokumentuari ondorengo izenburua jarri beharko zaio Google Drive-en partekatu aurretik: Ikaslearen izen abizenak_ikastetxea_maila_ikasgela.
Adibidez: Leire de Miguel_ikertze_5A

5. Sariak:

Hiru sari emango dira; Lehenengoarentzat 110 euroko truke-txartela ; Bigarrenarentzat 80 euroko truke-txartela; Hirugarrenarentzat: 50 euroko truke-txartela.

Txartel hauekin, laguntzaile diren dendatan, aisialdiarekin lotutako materiala erosi ahal izango da.

Gainera, lehiaketan esku hartzen duten guztien artean hainbat liburu zozketatuko dira.

6. Ipuinak aurkeztu: Ipuin Lehiaketako GOOGLE DRIVE kontuan apirilaren 17rako.

IKERTZE
emoción
enseña
piensa
experimenta
arte



7. Sari banaketa: Ekainaren 8an Lugaritz Kultur Etxean, 17:30etan.

Denda laguntzaileak: Arantxa, Delta, Garazi, Jator, Jimenez, La Información, Luma, Tama, Tele Pizza